



Gizakia

Pertsona bat, etorkizun bat
Una persona, un futuro

Txostena 2017

EDUKIA

3

Gizakia labur-labur

6

Zerbitzuen zerrenda

8

Urteko gertaera
esanguratsuak

10

Jardueren
irismena

11

Mendekotasunen
bat duten
pertsonekin eta
haien familiekin
esku hartzea

15

Portaera
arriskutsua duten
nerabeekin eta
haien familiekin
esku hartzea

19

Lan-merkatutik
kanpo utzitako
pertsonekin esku
hartzea

24

Biztanleria
orokorrarekin
esku hartzea

25

Lantaldea

29

Sentsibilizazioa eta
komunikazioa

32

Emitza
ekonomikoak

33

Funtsen
jatorria eta
helburua



XEDEA

Irabaz asmorik gabeko erakundea gara, gizartearen interesekoa eta Bilboko Elizbarrutiak bultzatua. Bizitzan zailtasun larriak dituzten pertsonak ditugu xede eta haien gizarteratzea sustatzen dugu osoko eta kalitatezko esku-hartzearen bitartez, honako esparruetan:

- Nerabezaroan ager daitekeen portaera arriskutsuari aurrea hartzea.
- Mendekotasunen bat duten pertsonak tratatu eta gizarteratzea.
- Enplegarritasun zailekoak diren kolektiboak laneratzea.
- Profesionalak eta oro har gizartea sentsibilizatu eta prestatzea.

Pertsona horien familia- eta gizarte-inguruarekin batera lantzen ditugu aurreko esparruak, komunitateko gainerako baliabideekin lankidetzan.



IKUSMOLDEA

Bizkaiko gizartearen baitan erreferentea izan nahi dugu eremu sozio-sanitarioan. Erantzun pertsonalizatu, berritzaile eta kalitatezkoak emateko gai den erreferentea izan nahi dugu, erantzun horiek gure lanaren xede diren kolektiboen beharrianetara egokituz.



BALIOAK

Honako balio hauek erakusten dute guk esku-hartzea nola ikusten dugun:

- SOLIDARITATEA
- PERTSONAREN PROTAGONISMOA
- BERDINTASUNAREN SUSTAPENA
- OSOKO ARRETA
- GAITASUN PROFESIONALA
- PARTAIDETZA
- GARDENTASUNA
- SAREAN LAN EGITEA
- NORTASUNA



ESKU HARTZEKO EREDUA


Gizakia Fundazioan ikuspegi biopsikosoziarik egiten dugu lan. Izan ere, gure ustez pertsona baten bizitza osatzen duten eremu guztiak kontuan hartzea da pertsona horren arazoak ondo lantzeko modurik onena.

Gizarte-, osasun- eta lan-arloko arreta ematen dugu, modu integratuan. Diziplina desberdinetakoak diren, esperientzia zabala duten eta taldean lan egiten duten profesionalak ditugu horretarako.


Orain esku hartzeko daukagun eredua programetan oinarritutako ikuspegitik prozesuetan oinarritutako ikuspegiara pasatzen da, pertsona bakoitzaren beharrianak ardatz bihurtuz.

- Pertsonen beharrianak ardatz dituen (banakako planak).
- Modularra, zerbitzuen osotasunean oinarrituta
- Malgua eta eraginkorra.


Menpekotasunak



Laneratzeara



Prebentzioa





NOLA EGITEN DUGU LAN?

- **Osoko arreta** ematen dugu, ikuspegi soziosanitariotik. Gizarte-laguntza eta etengabeko zaintza eskaintzen ditugu prozesu osoan zehar.
- **Irabaz asmorik gabeko erakundea** gara, onura publikokoa eta gizartearen interesekoa. Gure zerbitzuak doakoak dira eta erakunde publikoen, dohaintzen eta borondatezko ekarpenen bitartez finantzatzen ditugu.
- **Sistema publikoek** gizarte esku-hartzearen, osasunaren eta enpleguaren arloan dituzten **sareen parte** gara.
- Bizkaiko **gizarte-erakundeekin lankidetzan** aritzen gara.
- **Esperientzia zabala** dugu esku-hartzearen alorrean.
- Ezagutza espezializatua, **kalitatea eta kudeaketa gardena** eskaintzen ditugu.
- **Berrikuntzaren** aldeko apustua egin dugu.
- **Bizkaiko** lurralde osoan **egiten dugu lan**.
- **Boluntarioen solidaritatea** sartzen dugu gure proiektuetan.



ZERBITZUEN ZERRENDAA



MENDEKOTASUNAK

Mendekotasunen bat duten pertsonekin eta haien familiekin esku hartzea

- Gainbegiratutako kontsumoa. CeSSAA
- Ordezko tratamendua opiazeoekin: PMM
- Tratamendua anbulatorioan
- Tratamendua egoitzan: Komunitate terapeutikoa
- Eguneko zentroa
- Gizarteratzen laguntzeko zentroa. GLZ
- Espetxean esku hartzea
- Familientzako laguntza

PREBENTZIOA

Portaera arriskutsua duten nerabeekin eta haien familiekin esku hartzea

- Orientazioa eta aholkularitza
- Esku-hartze psikosoziala eta terapeutikoa

LANERATZEA

Lan-merkatutik kanpo utzitako pertsonekin esku hartzea

- Enplegurako orientazioa eta prestakuntza
- Lan-prospekzioa

AHOLKULARITZA ETA PRESTAKUNTZA

Biztanleria orokorra

- Kolektibo desberdinen prestakuntza eta sentsibilizazioa
- Aholkularitza tekniko espezializatua

ARRETA EMATEKO ZENTROAK



1 Mendekotasunen bat duten pertsonak egoitzan tratatzeko **komunitate terapeutikoa**.



Zubiete auzoa, 61
San José ikastetxea.
48192 Gordexola.
Telefono zk: 94 679 91 91
comunidad@gizakia.org

2 Portaera arriskutsua duten nerabeei eta haien familiei arreta emateko **Simon Bolivar egoitza**



Simon Bolivar kalea, 8
48010. Bilbo
Telefono zk: 94 444 05 07
hirusta@gizakia.org

3 Zerbitzu orokorrak, laneratzea eta mendekotasunen bate duten pertsonaei eta haien familiei egoitza barrukoa ez den arreta emateko **Madariaga egoitza**.



Madariaga etorbidea, 63
48014. Bilbo
Telefono zk: 94 447 10 33
secretaria@gizakia.org

4 **Bailen egoitza**
1. nasa - Gainbegiratutako kontsumorako eta mendekotasunen bat duten eta kontsumitu egiten duten pertsonak gizarteratzeko programa.



Bailén kalea, 1 sotoa
48003. Bilbo
Telefono zk: 94 479 57 83
cessaa@gizakia.org

URTEKO GERTAERA ESANGURATSUAK



Urte zaila izan da, momentu on eta txarrez beterikoa. Gauza garrantzitsuak lortu ditugu, esate baterako, Kudeaketa Aurreratuaren Zilarrezko A+ saria. Horrez gain, Hirustaren lehenengo hitzarmena sinatu da administrazio publiko batekin (Bilboko Udalarekin).

Hala ere, hitzarmenetan izandako murrizketek eta diru-laguntzak emateko orduan izandako atzerapenak Mendekotasunen arloari eta Laneratze-arloari eragin diete. Ondorioz, emaitza negatiboa izan da oso, eta gure lanaren xede diren pertsonen beharrezan gure ustez behar bezala erantzuteko dugun gaitasuna baldintzatu du horrek.



Hona hemen 2017an gure erakundea markatu duten hiru elementu:

- **San Jose Ikastetxearen eraikina eta lursaila erosi ditugu**, horien jabe den erakundeak saltzea erabaki baitzuen. Bertan dago Komunitate terapeutikoa. Ondorioz, Gizakia Fundazioa izugarri zorpetu behar izan da eraikina erosi eta egokitu ahal izateko. Beste edozein aukerak arrisku larrian jarriko zukeen egoitzako tratamenduaren jarraitutasuna, mendekotasunen bat duten pertsonen arreta emateko ezinbesteko baliabidea dena.

Inbertsioari esker, irisgarriago egin ahalko da eraikin osoa, izugarri hobetuko dira Komunitate terapeutikoak arreta emateko dituen baldintzak eta prestakuntzarako eta lanerako ekintza berriak abiaraziko dira. Egoera zaurgarrian dauden edo lan-merkatutik kanpo geratu diren pertsonen beste profil batzuei zuzenduta egongo lirakeke ekintza berri horiek, Komunitate terapeutikoaren eguneroko funtzionamendua oztopatu gabe.



- Euskalitek eta Eusko Jaurlaritzak **Kudeaketa Aurreratuaren zilarrezko A+ saria** eman ziguten 2017ko abenduan. Fundazioak duela hainbat urtetik arlo guztietan eta intereseko talde guztiekin egindako kudeaketa-lanaren kalitatea hobetzeko egin izan duen lanaren emaitza da saria. Euskaliten ebaluazio talde batek aztertu zuen gure lan egiteko eta kudeaketarako eredua. Eremu desberdinetako 8 profesionalak osatzen zuten taldea (gizarte esku-hartzea, hezkuntza, osasuna eta aholkularitza). Mendekotasunen arloan zilarrezko A+ aitortpena jaso duen lehenengo erakundea gara alde batetik, eta gizarte esku-hartzearen sektorean sari hori MGA erreferentziarako eredu berriarekin lortu duen bigarren erakundea bestetik. Gure Kudeaketarako Gidaliburua aukeratu dute Euskaliten webgunean argitaratzeko, Bikaintasunaren Bilatzailea izeneko eremuan, kudeaketa-ereduan aurrerapenak egin nahi dituzten enpresentzako erreferentea izan dadin.



- **2017ko ekainean bukatu zen Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarteratze Sailak mendekotasunen bat duten pertsonak gizarteratzeko prozesuei emandako laguntza, Gizarteratzen Laguntzeko Zentrotik abiarazitako prozesuei emandakoa, alegia.** Kontsumo aktiboa egiten duten pertsonak lirateke horiek, gizarteratzeko prozesuari ekin nahi diotenak. Kontsumitzeari utzi nahi dioten eta intentsitate handiko esku-hartzerik behar ez duten pertsonak ere egongo lirateke tartean, prozesuaren zati bat beste baliabide batzuetan burutu dutelako edo malgutasun handiagoko lana ahalbidetzen duen laguntza-sare bat dutelako. Gizarte-zerbitzuen zerrenda zabaltzeko prozesuaren baitan sartuko litzateke gertaera hau. Ziurgabetasunez beteriko momentua da mendekotasunen arloan espezializatutako baliabideak -hau bezalakoak- administrazio publikoek eskainitako zerbitzuen zerrendetan sartzeko (baliabide honen baitan emandako arreta Gizarte-zerbitzu, Osasun eta Justizia sailekin lotuta dago modu askotara).

Gizarteratzen laguntzeko hitzarmena burutu da. 2017an 233ri eman zien arreta baliabide horrek.

Dena den, Gizakia Fundazioak laguntza eske hurbiltzen diren pertsonen laguntzen jarraitzearen aldeko apustua egin du, baliabidearen baitan arreta ematen duen lantaldea egokitu behar izan dugun arren.



ESTIBALIZ BARRON PARDO
Zuzendaria

JARDUEREN IRISMENA

4.885



%38 %62



Gure lanaren xede diren lau kolektiboekin egindako esku-hartze prozesuetan arreta zuzena jaso duen pertsona-kopurua adierazi da atal honetan. Guztira 4885 pertsona artatu dira.

MENDEKOTASUNEN BAT 1.441 >>>>>> %29
DUTEN PERTSONAK
ETA HAIEN FAMILIAK

PORTAERA 446 >>>>>> %9
ARRISKUTSUA DUTEN
NERABEAK ETA HAIEN
FAMILIAK

LAN-MERKATUTIK 866 >>>>>> %18
KANPO UTZITAKO
PERTSONAK

BIZTANLERIA 2132 >>>>>> %44
OROKORRA

MENDEKOTASUNEN BAT DUTEN PERTSONEKIN ETA HAIEN FAMILIEKIN ESKU HARTZEA



MENDEKOTASUNAK

Droga-mendekotasun orotarako arreta-zerbitzua eskaintzen dugu, **alkoholaren mendekotasuna** eta **substantziarik gabeko mendekotasunak** barne hartuta.

Mendekotasunen bat duten pertsonek osatutako kolektiboa heterogeneoa da. Hori dela eta, **osoko arreta pertsonalizatua** eman ahal izateko zerbitzu desberdinak ditugu.

Banakako esku-hartze planen bidez, emandako arreta mota eta bere intentsitatea eta eskakizun-maila pertsona bakoitzaren beharrezanetara egokitzen dira. Horrela, gizarteratzeko prozesuak gauza daitezke bai mendekotasunari uko egitea planteatzeko ari diren pertsonekin

eta bai mendekotasunaren eragina murriztu eta bizi-kalitatea eta eguneroko funtzionamendua hobetu nahi dituzten pertsonekin.

Aurten **Errehabilitazio Neuropsikologikorako Programa** jarri da martxan. Deustuko Unibertsitateak sortua da eta narriadura kognitiboa duten eta Komunitate terapeutikoan dauden pertsonekin abiarazi da. Alkohola luzaroan kontsumitu izan duten pertsonak dira gehienbat. Esperientzia horretan izandako emaitza onak kontuan hartuta, datorren urtean metodologia bera aplikatuko da Fundazioaren beste zerbitzu batzuetan.

MENDEKOTASUNEN BAT DUTEN PERTSONEN GOGOBEKETASUNAREN ADIERAZLE OROKORRA



8.72 8,78

1.441



MENDEKOTASUNAK DITUZTEN PERTSONAK

MENDEKOTASUNEN BAT DUTEN PERTSONEN SENIDEEN GOGOBEKETASUNAREN ADIERAZLE OROKORRA



7.75 8.50

1.001 >>> %17 %83

SENIDEAK

440 >>> %68 %32


**MENDEKOTASUNEN BAT DUTEN
PERTSONEN EZAUGARRIAK**

Mendekotasunen arloan arreta jaso duen biztanleriaren %65 31 eta 48 urte bitartekoa da.



%14 %86

ADINA %




JATORRIA %

Mendekotasunen arloan arreta jaso duen biztanleriaren % 7 atzerrikoa da. Latinoamerikakoak eta Ipar Afrikakoak dira.

**GEHIEN KONTSUMITUTAKO
SUBSTANTZIA**

Oraindik ere kokaina da gizonezkoek gehien kontsumitzen duten droga. Emakumezkoen kasuan, kasu gehienetan alkohola, heroína eta benzodiazepinak uzteko laguntza eskatzen dute.



PATOLOGIA DUALA %

Mendekotasunen batez gain buruko patologiaren bat diagnostikatu zaien pertsonen ehunekoa % 50ekoa da jada. Generoaren arabera banatuz gero, ehunekoa altuagoa da emakumezkoen kasuan, % 66ra heldu baita.

Komunitate terapeutikoaren kasuan, bertan artatutako pertsonen % 73ri diagnostiko hori egin zaio eta emakumezkoen kasuan % 82ri.



LAN EGOERA %



% 72a ez dago lanean (% 58 langabezian daude,
% 12 erretirodunak dira eta % 2 ikasleak dira)
eta % 28k lana du. Azken ehuneko horretatik
% 6 medikuaren baja hartuta dago.

PRESTAKUNTZA AKADEMIKOA

Artatutako pertsonen % 76k Derrigorrezko
Hezkuntzaren helburuak betetzen ditu
gehienez ere.

ETXEBIZITZAREN EGOERA

Mendekotasunen arloko baliabideetara jotzen
duten pertsonen % 13 etxerik gabeko pertsonak
dira, kaletik, aterpetxeetatik, ostatu kolektiborako
zentroetatik, espetxeetatik eta abarretik
datozenak.

ESKU HARTZEA, ZERBITZUAREN ARABERA

ESKU-HARTZEA, ZERBITZUAREN ARABERA *	GUZTIRA		
Familientzako arreta zerbitzua	440	%32	%68
Gizarteratzen laguntzeko zentroa (GLZ)	223	%80	%20
Eguneko zentroa	104	%81	%19
Mendekotasunen arloan arreta emateko zentro soziosanitarioa. CeSSAA	432	%83	%17
Komunitate terapeutikoa	108	%80	%20
Esku-hartzea espetxeetan	107	%98	%2
Ordezko tratamendua opiazeoeekin (OTO)	78	%78	%22

* Zerbitzu bakoitzaren arabera antolatu dira esku-hartzeak baina pertsona batek zerbitzu bat baino gehiago erabil dezake.

FINANTZATZAILE NAGUSIAK



BESTE KOLABORATZAILE BATZUK



PORTAERA ARRISKUTSUA DUTEN NERABEEKIN ETA HAIEN FAMILIEKIN ESKU HARTZEA



PREBENTZIOA

Modu globalean egiten dugu lan nerabearekin eta bere familia eta inguruarekin. Epe ertain edo luzera arazoak ekar ditzakeen **portaera arriskutsuaren harira** esku hartzen dugu.

Portaera arriskutsua litzateke nerabeak heldu bihurtzea eta gizarteratzea oztopa dezakeen portaera mota oro, esate baterako eskola-porrota eta/edo eskolara ez joatea, familia-harreman gatazkatsuak, lapurreta txikiak edo beste delinkuentzia-zantzu batzuk, drogak kontsumitzen hastea, alkohol gehiegi edatea...

Bakarka, taldeka edo modu mistoan eman daiteke arreta eta krisia etetea, familiak ahalduntzea eta nerabeei heldze-prozesuan zehar laguntzea da helburua.

12 eta 21 urte bitarteko nerabe eta gazteei arreta emateko Hirusta programa prebentzio-arloari atxikita dago.

2017 honetan hitzarmen bat sinatu da Bilboko Udaleko Gizarte Ekintza Sailarekin, portaera arriskutsua duten nerabeei eta haien familiei arreta emateko, **Oinarrizko Gizarte-zerbitzuekin**, nerabeekin eta familiekin lankidetzan.

Gurasoek maiztasun handiagoarekin helarazi dizkigute haien kezkak, seme-alabek apusturik gabeko **on line jokoak** erabiltzen dituztelako, gehiegi, kasu batzuetan (denbora gehiegi pasatzen dute joko horietara jolasten eta alde batera uzten dituzte beste jarduera batzuk, lo-ohiturak eta elikadura aldatu zaizkie, jarrera oldarkorra dute jokatzeko ari direnean eta jokatzeari utzi behar diotenean, eta abar). Era berean, familiak kezkatuta daude adingabeek eta gazteek internet bidezko apustuak edo kirol apustuak egiten dituztelako. Erronka horri aurre egiteko, zientzia- eta unibertsitate-esparruko adituekin lankidetzan ari gara.

Nafarroako Unibertsitatearekin lankidetzan jarraituko dugu, Hirusta programan nerabeekin lan egiteak duen eraginkortasuna aztertzeko ikerketa-lan berri batean.

446



NERABEEN GOGOBTETASUNAREN ADIERAZLE OROKORRA

GAZTEAK



120 >>> %30 %70

NERABEEN FAMILIEN GOGOBTETASUNAREN ADIERAZLE OROKORRA

SENIDEAK




326 >>> %58 %42

NERABEEN ETA HAIEN FAMILIEN EZAUGARRIAK

ADINA

%



Arreta jaso duen biztanleriaren
%78 14 eta 18 urte bitartekoa
da.






JATORRIA %

Prebentzio-arloan arreta jaso duen biztanleriaren % 8 atzerrikoa da. Latinoamerikarrak dira gehienak.

KONTSULTAREN ZERGATIA %



- Mendekotasunak, substantziarekin eta substantziarik gabe
- Portaera oldarkorra / deliktiboa
- Gatazka / arazoak eskola-inguruan
- Gatazka familian
- Nerabe krisia
- Joera arazoak
- Buru osasuna
- Beste batzuk




NOLA IZAN DUTE ZENTROAREN BERRI? %

Nola izan dute zentroaren berri?	%
Gizarte-zerbitzuak	%19
Lagunak - senideak	%17
Ikastetxeak	%18
Osasun zentroak	%7
Beste profesional batzuk	%3
Oraingo / lehengo Gizakia Fundazioko pazienteak	%5
Komunikabideak / internet	%23
Auzitegiak	%2
Enpresak, beste erakunde batzuk	%3
Bestelakoak	%4
Guztira	%100

Hirustan arreta jaso duen biztanleriaren % 49 baino gehiago nerabeekin eta familiekin harremanetan dauden profesionalak bideratua izan da (ikastetxea, gizarte-zerbitzuak, auzitegiak, osasun-arloko profesionalak eta gizartean esku-hartzeko profesionalak). Datu esanguratsua deritzogu, arazoak alor desberdinetan hautematen direla erakusten baitu. Arazo horiei erantzuten die Hirustak.



FAMILIA MOTA %



FINANTZATZAILE NAGUSIAK



Patronato Damas de Gorliz
Gorlizko Damen Patronatua

BESTE KOLABORATZAILE BATZUK



LAN MERKATUTIK KANPO UTZITAKO PERTSONEKIN ESKU HARTZEA



LANERATZEA

Gaitasun pertsonalak zein gizarterako eta lanerako gaitasunak garatzen laguntzen diegu langabezian dauden edo lan bila dabiltzan pertsoneri, lan-merkatuan leku onuragarria lor dezaten eta lanpostu bat lortu eta mantentzeko gai izan daitezen. Hiru prozesu desberdin barne hartzen ditu (orientazioa, prestakuntza eta prospekzioa eta lan-bitartekaritza). Modu koordinatuan funtzionatzen dute hiru prozesuek eta horrela, ahalik eta etekin gehien ateratzen zaie prozesuen artean sortutako sinergieiei eta osoko esku-hartzea eskaintzen zaie erabiltzaileei.

Aurten lan-mundutik urrunduak dagoen kolektiboa osatzen duen pertsona-kopurua urriagoa izan da. Banakako eta taldekako arretaren intentsitatea ere baxuagoa izan da eta laneratzeko helburu gutxiago lortu dira. Hori guztia, prestakuntza-jarduerak eta enplegu-zentroa finantzatzeko erabiltzen den diru-laguntzen sistemarekin zerikusia duten arrazoiengatik.

Sistema horren ondorioz, ez dira baliabide hauek finantzatzen urteko sasoi batzuetan (aurten Orientazio-arloari eta Enplegu-zentroari eragin die 10 hilabetez). Hala ere, Fundazioak mendekotasunekin eta prebentzioarekin loturiko programetara sartzen diren eta laneratzeko laguntza behar duten erabiltzaileei arreta ematen jarraitzen du, pertsona horiek gizarteratzeko prozesuen iragarpena hobetzeko asmoz.

Bestalde, esan beharra dago aurten Caritasen II bikarriotzarekin lankidetzan hasi garela, **“Soloan ere Ondoan”** izena duen eta soloan talde-lanean aritzean datzan programa garatzeko. Hala, lursail bat laga zaio Gordexolan eta pertsona talde batek Komunitateko soloan praktikak egitea ahalbidetu da. 2018an zehar lankidetzara horretan aurrera egiten eta hura zabaltzen jarraituko dugu.

866



»»» %42 %58

ADINA %

Biztanleriaren % 67,32k **36 urtetik** gora ditu. Gizonezkoen batez besteko adina 39 urtekoa da eta emakumezkoena 41 urtekoa.



ARTUTAKO BIZTANLERIAREN EZAUGARRIAK


JATORRIA %

Jatorrizko herrialdea	%
Nazionala	%73
Europar Batasuna	%3
Erdialde eta hego Amerika	%12
Ipar Afrika	%7
Gainontzeko Afrika	%4
Beste herrialde batzuk	%1
Guztira	%100



Arreta jaso duten pertsonen % 27 atzerritarrak direla azpimarratu beharra dago.

PRESTAKUNTZA AKADEMIKOA %



Pertsonen % 67,43k Derrigorrezko Hezkuntzaren helburuak betetzen ditu gehienez ere. Hezkuntza-maila baxua duen biztanleria da eta beraz, lehentasunezko helburua da pertsona horiek profesionaltasun ziurtagiriak lortu ahal izateko lan egitea.



LAN EGOERA %

Zerbitzura heltzen diren pertsonen % **83,94** langabezian dago.

82 pertsonak, hots, **%9,46k**, elbarritasunen bat edo ezintasunen bat dute.



Biztanleria	Lan-egoera	%
Aktiboa	Langabezian	%84
	Lanean baina kontraturik gabe	% 2
	Lanean kontratuarekin / autonomoak *	%12
Ez-aktiboa	Ikasten	% 1
	Ezintasun absolutoa / erretirodunak	% 1

* Kontratu gehienak aldi baterakoak eta/edo lanaldi partzialekoak dira.

DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA %

Guregana jo duten pertsonen artetik, % **53,35ak** diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE) jasotzen du (250 gizonezko: % 54 eta 212 emakumezko: % 46).

  %46 %54

 **462**





ENPLEGURAKO ORIENTAZIOA

BANAKAKO ELKARRIZKETAK >>> **1389**

LANERATZE EHUNEKOA % >>> **% 42,10**

293 kasu burutu dira Lana modu aktiboan bilatzeko ekintzak.
% 42k baino gehiagok lan-esperientzia bat bizi izan du gutxienez.

TALDEKAKO EKINTZAK *

>>> **16**

- Norberaren ezagutza.
- Denboraren kudeaketa.
- Lana bilatzeko webguneen erabilera.
- Genero-berdintasuna lan arloan.
- Lan-elkarriketa.

ENPLEGU ZENTROA

Espazio honetan pertsonak lana bilatzeko prozesua antolatzen dute orientatzaile batek gainbegiratuta eta lagunduta, eskuragarri dituzten tresnak erabiliz: internetera sarbidea duten ordenagailuak, prestakuntza- eta lan-eskaintzak, curriculumak prestatu eta bidaltzeko laguntza...



BERTARA DOAZEN PERTSONAK >>> **261**

BANAKAKO ESKU-HARTZEAK >>> **595**



LANERAKO PRESTAKUNTZA

Zeharkako gaitasunak lortzeko prestakuntza eskaintzen da, hau da, errazago laneratzeko oinarrizko gaitasunak, ohiturak eta portaerak berreskuratzeko jarduerak. Horrez gain, kualifikazio eta gaitze profesional hobea lortzeko prestakuntza-jarduerak eskaintzen dira.

PRESTAKUNTZAN
IZANDAKO
GOGOBEKETASUN-
MAILAREN
ADIERAZLE
OROKORRA



	PRESTAKUNTZA-JARDUERAK	Ikastaro kopurua	Orduak	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Pertsona kopurua
ZEHARKAKO PRESTAKUNTZA OSAGARRIA	1. mailako CP aurreko funtsezko gaitasunak	6	150	50	31	81
	Lan-ingurura bideratutako gaitasun sozio-pertsonalak	3	140	18	10	28
	Oinarrizko prestakuntza	3	20	34	2	36
	Enplegarritasunerako oinarrizkoak diren gaitasun soziolaboralak	5	55	39	29	68
	Gaitasun sozialetan trebatzea	5	12	30	9	39
	Oinarrizko ofimatika	2	30	14	4	18
	Informatika: sareak eskaintzen dituen aukerak	2	10	9	3	12
LANERAKO PRESTAKUNTZA	Ondorengo lanbide-familiako 1.mailako CP prestakuntza: NEKAZARITZA	2	160	13	3	16
	Ondorengo lanbide-familiako 1.mailako CP aurreko prestakuntza: OSTALARITZA ETA TURISMOA	1	80	10	1	11
	ERAIKIN ETA LOKALEAKO GARBIKETA LANETAKO oinarrizko zereginen CP aurreko prestakuntza	1	80	6	7	13
	Garbiketa-lanak eraikinetan eta lokaletan	1	150	6	5	11
	GUZTIRA	31	2425	229	104	333

FINANTZATZAILE NAGUSIAK



BESTE KOLABORATZAILE BATZUK





LAN PROSPEKZIOA

Enpresak sentsibilizatzean eta haiei informazioa ematean zentratzen da, gure lanaren xede diren eta gizarteratzeko zailtasunak dituzten kolektiboetako pertsonak kontratatzeko. Horrez gain, laneratze-prozesuaren jarraipena ere egiten da. Honako hiru helburu hauek bete nahi dira:

- Enpresak sentsibilizatzea kolektibo honen enplegarritasunaren inguruan.
- Praktikak egiteko plazak eskatzea.
- Lan-eskaintzak erakartzea.



KONTAKTATUTAKO ENPRESAK	>>>	96
BISITATUTAKO ENPRESAK	>>>	67
SINATUTAKO KONTRATUAK	>>>	36

2017. urtean **96 enpresarekiko harremana** mantendu da eta horietatik **67 bisitatu dira**. Lan horren emaitza modura, **36 kontratu** sinatu dira. Izan ere, zerbitzuak une oro kontuan hartzen ditu lan-merkatuaren eta enpresa-sarearen beharrianak.

Krisialdiaren ondorioak gehien pairatzen dituzten kolektiboekin egiten dugu lan, zaurgarrienak direlako hain zuzen ere. Hori kontuan hartuz gero, emaitza positiboa dela esan dezakegu.

FINANTZATZAILE NAGUSIAK

incorpora
de "la Caixa"

BIZTANLERIA OROKORRAREKIN ESKU HARTZEA

2.132



KOLEKTIBO DESBERDINEN PRESTAKUNTZA ETA SENSIBILIZAZIOA:

2.132 pertsonak parte hartu zuten urtean zehar egindako prestakuntza- eta sentsibilizazio-jardueretan. Honako gai hauen ingurukoak izan ziren jarduerak:

- Nerabezaroa eta portaera arriskutsua.
- Nerabezaroan drogen kontsumoa eta portaera arriskutsua ekiditea.
- Irakasleak, DBHn drogen kontsumoa ekiditeko eragile.

GOGO BETETASUNAREN
ETA SENSIBILIZAZIOAREN
ADIERAZLE ORKORRA



AHOLKULARITZA TEKNIKO ESPEZIALIZATUA

Tokiko administrazio publiko batzuekin lankidetzan aritu gara komunitaterako prebentzio-planak garatzeko:

- Laudioko Udala. Zuzen Zerbitzua - Seme-alaba nerabe gatazkatsuak dituzten familientzako aholkularitza.
- Santurtziko Udala. Udalerrian droga-mendekotasun arloko prebentzioa, laguntza eta gizarteratzea hobetzeko programa.



LANGILEAK

2017an zehar Gizakia Fundazioak **50,38** jardunaldi izan ditu guztira, bere jarduerak gauzatzeko.


50,38  



Fundazioak diziplina anitzeko taldea dauka, ondorengo hauek osatua: soldatapeko langileak, zerbitzuak emateko kontratua duten langileak (gehienbat unean uneko jarduerak burutzen dituzte eta/edo lanbide-profil zehatz bat dute) eta boluntarioak.

 
%75 %25

ADINA
%



LANGILEEN ANTZINATASUNA

Antzinatasuna	Gizonezkoa	Emakumezkoa
<3	%8	%37
3-10	%7	%17
11-20	%4	%9
>21	%7	%12
Guztira	%25	%75


ENPLEGUAREN EGONKORTASUNA %

%77

Kontratuen % 77 mugagabea da.



KONTRATATUTAKO PERTSONEN GOGOBETETASUNAREN ADIERAZLE OROKORRA:



LANBIDE PROFILAK - LANALDIAK

Langileen profilari dagokionez, kasu honetan ere emakumezkoak dira gehienbat (langileen % 75) eta **psikologiari** eta **gizarte-hezkuntzari** lotutako profilak dira nagusi.

Langileen % 60k **goi-mailako titulazioa** du. Horietatik % 73k masterreko titulua eta/edo gradu-ondoko titulua du medikuntza-arloan (osasun mentala) eta psikologia-arloan (taldeko psikoterapia, psikologia klinikoa, mendekotasunak).

Profilak	Lanaldiak	Profilak	Lanaldiak
Administraria	1,27	Langile laguntzailea	0,44
OLT / EUD	3,16	Laguntza emateko irakaslea	0,58
Gizarte hezitzailea	14,69	Psikologoa	15,20
Tailerreko burua	0,55	Kudeaketa- eta administrazio-arloko goi-teknikaria	4,91
Medikua	2,71	Esku hartzeko goi-teknikaria	2,00
Pedagogoa	2,88	Gizarte langilea	2,00

PRAKTIKETAN ARI DIREN PERTSONAK

2017an zehar 27 pertsona praktikan aritu dira Gizakia Fundazioarekin, zerbitzu desberdinetan.



PRAKTIKETAN ARI DIREN PERTSONEN GOGOBETETASUNAREN ADIERAZLE OROKORRA:

Behin praktikak bukatuta, oso positiboa izan da gogobetetasun-maila orokorra.





BOLUNTARIOAK

2017an zehar 65 pertsonaren laguntza izan genuen etengabe. 18 pertsonak boluntariotza bukatu dute eta 14 boluntario berri gehitu zaizkigu. Beste 47 pertsonak parte hartu dute Fundazioaren jarduera berezietan (Gabonetan loteria saltzea, literatur sorkuntzarako mintegiak, etab).

65





%74 %26

2017an zehar Fundazioarekin lankidetzan aritu diren boluntarioak **emakumezkoak** izan dira gehienbat (% 74) eta haien batez besteko adina 50 urtetik gorakoa izan da.


Batez beste, boluntarioek 9 urte daramatzate arlo desberdinetako jardueretan laguntzen. Astean 2,5 ordu eskaintzen dituzte batez beste.

ADINA %



Boluntarioen banaketa, arreta-arloen arabera.

BOLUNTARIOEN GOGOBETETASUNAREN ADIERAZLE OROKORRA:



Gizakia Fundazioan askotariko eginkizunak burutzen dituzte boluntarioek eta pertsona bakoitzak espero duenaren eta erakundeak dituen beharrianen artean egindako egokitzapenari erantzuten diote:

- Harreran eta telefonoz arreta ematea
- Konpainia-zerbitzua
- Irakasleak

Eginkizun desberdinetan laguntzea:

- Erizaintza-arloan
- Talde terapeutikoak
- Eguneroko bizitzari lotutako tailerrak
- Administrazioa
- Berdintasun plana, etab.





ARGITALPENAK ETA ARTIKULUAK



- **“Experiencia de inserción desde un recurso de consumo supervisado”** txostena. Egilea: Fernández de Aguirre Malaina, M., Oviedon egin ziren Sozidrogalkoholari buruzko XLIV. Jardunaldi Nazionalen baitan.
- **“Intervención en la Comunidad”** txostena. Egileak: Saldaña, B. eta Mazón, P., Bizkaiko Medikuen Elkargoan egin ziren eta RSMBk eta OSI Barrualde-Galdakaok antolatu zituzten Patologia Dualari buruzko VIII. Jardunaldien baitan.
- **“Cartera de servicios de Fundación Gizakia. Oportunidades de colaboración.”** txostena. Egilea: Cortés, R., Bilbo-Basurtuko OSiko erizaintzako eta lehen mailako arretako arduradunei zuzendutako jardunaldien baitan.
- **“Itinerarios educativos de inclusión social en adicciones”** aurkezpena. Egilea: Cortés, R. Deustuko Unibertsitateko Gizarte-hezkuntzako ikasleei zuzendua.
- **Gizakia Gertutik** komunikazio-buletina, 18. eta 19. zenbakiak. Gizakia Fundazioa. 2017ko ekaina eta abendua.

AZTERLANETAN IZANDAKO PARTE-HARTZEA

- **“Enfermedad Mental y Alta Exclusión social en Bizkaia”** izeneko ikerketa sozial kualitatiboan izandako parte.hartzea, UPV-EHUKo Soziologia Saila.
- **“Perfil de la Persona Atendida en UNAD”** izeneko azterlanean izandako parte-hartzea, UNAD.
- Club Excelencia en Gestión-ek garatutako **“Pulso de Agilidad Organizacional”** azterlanean izandako parte-hartzea, ondorengoekin lankidetzan: EFQM, CEGOS eta EUSKALIT.





FOROETAN PARTE-HARTZEA:



- Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Hirugarren Osasun Sektorearen Batzorde Estrategikoa.
- Eusko Jaurlaritzako Droga-mendekotasunaren Aholkularitza Kontseilua.
- Euskal Herrian bizi diren etorkinak gizarteratzeko eta haiek gizartean parte hartzeko foroaren laneko eta lanerako prestakuntzarako batzordea.
- Bilboko Udaleko Droga-mendekotasunaren Aholkularitza Kontseilua.
- EAPNren Haurren Batzordea.
- Gizartean esku hartzeko etika batzordea. BFA.
- Bizkaiko boluntariatza-arduradunen foroa.
- EKAIN sarearen lanerako prestakuntzari buruzko lantaldea.
- EAPN Euskadiren Zuzendaritza Batzordea.
- ESIren talde gidaria (Bizkaiko Elizaren gizarte-erakundeak).

HONAKO SARE HAUEN PARTE GARA:

- **CEAA** - Mendekotasunei arreta emateko erakundeen konfederazioa.
- **UNAD** - Drogen mende dauden pertsonei arreta emateko elkarte eta erakundeen batasuna.
- **EAPN Euskadi** – Pobreziaren aurka borrokatzeko sarea.
- **Gizardatz** - Bizkaiko gizarte-ekimeneko eta gizartean esku hartzeko entitateen elkarte.
- **REAS** - Bestelako ekonomia solidario baterako sarea.
- **ESEN** (Espetxe Sarea Euskadi Nafarroa): Euskadin eta Nafarroan espetxeetan eta zigor-arloan lan egiten duten gizarte-elkarteen sarea.
- **Europako EDDRA Sarea**. Droga-mendekotasunaren prebentzioari buruzko informazio teknikorako sistema da, kalitate-estandar batzuk kontuan hartuta -ebaluazioa, tartean-onartutako programak biltzen dituena.
- **Emakumeok Bidean** (emakumeenganako indarkeriaren aurkako sarea).
- Genero-indarkeriaren aurkako **Emakumeok Martxan Plataforma**.
- **ESI** – Bizkaiko Elizaren gizarte-erakundeak.





EMAITZA EKONOMIKOAK

KONTU-IKUSKARITZA



Gure ustez, gizartea eraldatzeko prozesuen aldeko konpromisoa hartu dugun irabaz asmorik gabeko erakundeen ardatzetako bat da gardentasuna.


Auren Auditores Norte, SL kanpoko enpresak ikuskatu ditu gure kontuak, gure funtzionamenduaren gardentasunaren alde hartutako konpromisoaren erakusgarri.

Gastuak	Euroak	%
1. Arreta emateko langileen kostua	2.185.893,91 €	%76,73
2. Materialen eta elikagaien kontsumoa	89.917,65 €	%3,16
3. Alokairuak eta sariak	162.590,22 €	%5,71
4. Kanpo zerbitzuak eta azpikontratazioak	96.317,14 €	%3,38
5. Beste ustiapen gastu batzuk	173.073,56 €	%6,08
6. Finantza-gastuak eta bere gain hartutako gastuak	22.830,64 €	%0,80
7. Higiezinaren amortizazioa	113.322,99 €	%3,98
8. Ezohiko gastuak	4.744,17 €	%0,16
Gastuak guztira	2.848.690,28	%100
Diru-sarrerak	Euroak	
1. Diru-laguntza publikoak	1.951.411,50 €	%72,88
2. Erakunde pribatuen diru-sarrerak	175.144,93 €	%6,54
3. Beste dohaintza eta ekarpen batzuk	470.838,86 €	%17,58
4. Askotariko zerbitzuen eskaintza	76.228,22 €	%2,85
5. Beste diru-sarrera batzuk	4.066,65 €	%0,15
Ekitaldiaren emaitza	2.677.690,16	%100




FUNTSEN JATORRIA ETA HELBURUA

GASTUEN BANAKATZEA, HELBURUAREN ARABERA



Gastuen % 77 langileei zuzenean ordaintzeko da.

FINANTZAKETAREN JATORRIAREN LABURPENA



Diru-sarreraren % 97 kolektiboekin esku hartzeko eta boluntzariotza sustatzeko ekintzak finantzatzeko da.



Madariaga Etorbidea, 63
48014 Bilbo

Tel. 94 447 10 33

Fax. 94 447 11 58

fundacion@gizakia.org

www.gizakia.org

**Guztiok merezi dugu
bigarren aukera bat**

